

## **“BAKEAREN LORE GARA” PROIEKTU ARTISTIKOEN DEIALDIA**

### **Oinarriak**

Dimako Udalak, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin batera, “Bakearen Lore Gara” deialdia egin du.

#### **1. PARTE-HARTZAILEAK**

Ekimen hau 2017/2018 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatutako ikasleei dago zuzenduta (Gradu eta Graduondoko ikasleak). Bakarka edo kolektibo baten barruan parte hartzeko aukera dago.

#### **2. DEIALDIAREN GAIA ETA XEDEA**

Deialdiaren helburua Dimako memoria historikoan oinarritutako proiektu artistikoak garatzea da. Gerra zibilaren garaia eta gerraren giza dimentsioa izango dira abiapuntu, orduko andre, gizon eta umeen egoerak eta bizipenak gaurkora ekartzeko, gerraren gertaerak sekula gehiago errepikatu ez daitezzen (memoria historikoaren gaiari buruzko informazio gehiago deialdiarekin batera argitaratutako eranskinean irakur daiteke).

Proiektuak Diman garatzeko aukera izango dute ikasleek, artearen ikuspuntutik herriaren testuinguruan sakontzeko. Ikasleek beti ere bere ikuspegia eta herriaren nahiak uztartuko dituzte.

Proiektuaren emaitza iraunkorra izan beharko da, eta Dimako Udalak, artista entzun ondoren, zehazten duen gunean kokatuko da.

#### **3. HIZKUNTZA**

Deialdi honetan aurkeztuko diren proiektuak euskaraz garatuko dira.

#### **4. IZEN-EMATEA**

Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek aurkeztu behar dituzten dokumentuak hurrengoak dira:

- Eskatzailearen kontaktu-informazioa eta curriculum laburra.
- UPV/EHUko matrikularen frogagiriaren kopia (2017-2018 ikasturtekoa).
- Lan pertsonalari buruzko dokumentazio grafikoa/portfolioa (gehienez 4 Mb).

## **"BAKEAREN LORE GARA" PROIEKTU ARTISTIKOEN DEIALDIA**

### **5. ENTREGA-EPEA:**

Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 1era arte luzatuko da. UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetzan aurkeztu beharko dira, paperean edo hurrengo helbide elektronikora bidaliz: [ecultural.bellasartes@ehu.eus](mailto:ecultural.bellasartes@ehu.eus)

### **6. EPAIMAHAIA**

Epaimahaia UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko bi irakasle eta Dimako Udaleko bi ordezkari osatuko dute.

### **7. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA**

Epaimahaiaren erabakia publikoa eta ezeztazina izango da eta martxoaren 20a baino lehen ezagutaraziko da.

### **8. HAUTATUTAKO PROIEKTUAK**

Aurkeztutzako eskaeren artean epaimahaiak 3 hautatuko ditu Diman deialdiaren gaia jorratzen duten proiektuak garatu ditzaten (proiektu bana hautatutako eskaera bakoitzeko).

Proiektuaren garapena bermatzeko, proiektu bakoitzak 800 €-ko dirulaguntza jasoko du bi alditan: 400 € deialdia ebatzitakoan eta beste 400 €-ak proiektuaren garapena Udalean entregatzerakoan.

Dimako Udalak zehaztuko ditu 3 proiektuen garapeneko ezaugarriak. Hautatutako eskatzaileek proiektu bakoitza apirilaren 6an Diman aurkeztuko dute, bertan ospatuko den ekitaldi batean. Aurkezpena euskaraz izan beharko da, egileak berak zuzenean edo berak ekarritako norbaitek egin dezake.

Urrian, garatutako 3 proiektuetatik Dimako Udalak irabazlea aukeratuko du. Irabazleak 2.500 € diru-laguntza jasoko du proiektua burutu ahal izateko, Dimako Udalak zehaztuko dituen epeen barruan.

### **9. LANAK ITZULTZEA**

Aukeratuak izan ez diren eskatzaileen dokumentuak, paperean aurkeztu badituzte, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetzan jaso ahal izango dira apirilaren 27a baino lehen. Une horretatik aurrera lehiaketa honen antolakuntza ez da izango lanen arduraduna.

## **“BAKEAREN LORE GARA” PROIEKTU ARTISTIKOEN DEIALDIA**

### **10. OINARRIAK ONARTZEA**

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek adostasun osoz onartuko dituzte oinarri hauek eta epaimahaiak aurreikusi gabeko arazoak edo egoerak konpontzeko har ditzakeen erabakiak.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera sortuz gero, lehiaketaren antolatzaileek hartuko dituzte horri buruzko erabakiak, ahalik eta modurik egokienean.

### **11. KONTSULTAK**

Lehiaketari buruzko edozein kontsulta egiteko, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetzarekin harremanetan jarri:  
[ecultural.bellasartes@ehu.eus](mailto:ecultural.bellasartes@ehu.eus)